Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Feli Pagaegi Eizagirre

Markina-Xemein, Bizkaia (1928-2013)



Aurkibidea

Biografia



Goierrin auzoko Arrate baserriko alaba. Aita bertakoa zuen eta ama Amorotokoa. Aspiltzako eskolara joan zen 13 urtera artean. Gerra Zibilean milizianoak izan zituzten jaiotetxeko ganbaran bertan, beraiekin oso ondo portatu ziren eta jaten ere ematen zieten. 54 urterekin kale aldera etorri zen bizitzera. Juanita Etxanizekin batera egin genion elkarrizketa. Jaiak eta erromeriak, erremedio naturalak, nobio kontuak, erlijioaren garrantzia, baserriko bizimodua... izan zituzten berbagai.

Zintak

MAR-033

- **Proiektua**: Lea-Artibaiko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Data**: 2012-07-02
- **Iraupena**: 60 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Etxazarra, Ainhoa

MAR-034

- **Proiektua**: Lea-Artibaiko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Data**: 2012-07-02
- **Iraupena**: 66 min
- **Euskarria**: Bideo digitala

Pasarteak

1. Ogi-zopak meriendarako

- **Erref**: MAR-033/002
- **Iraupena**: 0:00:35. **Hasi**: 00:02:03. **Bukatu**: 00:02:38
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:
Umetan ez zuten aukera zabala edukitzen meriendarako, ogi-zopak hartzen zituzten beti.

2. Udan ezin eskolara joan

- **Erref**: MAR-033/003
- **Iraupena**: 0:01:46. **Hasi**: 00:02:38. **Bukatu**: 00:04:24
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:
Eskolara Azpeletara (?) joaten ziren, bertan inguruko auzoetako ume asko batzen ziren. Neskak eta mutilak banatu egiten zituzten orduko eskoletan. Udan sarri etxean geratu behar izaten zen Feli baserriko beharrak egiten, eta horregatik izan zen beti azkena eskolan.

3. Eskolan zigorrak euskaraz egitearren

- **Erref**: MAR-033/004
- **Iraupena**: 0:01:37. **Hasi**: 00:04:24. **Bukatu**: 00:06:01
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:
Maistra ondarroarra eduki zuten eskolan. Euskaraz eginez gero, gogor zigortzen zuen hark. Gaiztakeria asko egiten zuten eskolan; elkarri kopiatu, esaterako. Hamahiru urtera arte egon ziren eskolan. Gero, baserrian behar egiteko irten behar izan zuten.

4. Tiroketa gogorra San Esteban Egunean

- **Erref**: MAR-033/011
- **Iraupena**: 0:01:38. **Hasi**: 00:13:25. **Bukatu**: 00:15:03
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:
San Esteban eguna egun berezia zen lehen, eta, horregatik, garbantzu lapikoa jaten zuten. Gerra sasoian, San Esteban egunean tiroketa gogorra egon ei zen.

5. Tratu ona soldaduekin

- **Erref**: MAR-033/012
- **Iraupena**: 0:01:32. **Hasi**: 00:15:03. **Bukatu**: 00:16:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:
Feliren etxean milizianoak eduki zituzten ganbaran. Jateko asko edukitzen zuten haiek eta Feli sarritan joaten zitzaien jatekoa eskatzen. Etxean eduki zituzten soldaduak euskaldunak ziren, on-onak.

6. Leihoetan koltxoiak jartzen zituzten baletatik babesteko

- **Erref**: MAR-033/014
- **Iraupena**: 0:02:04. **Hasi**: 00:17:54. **Bukatu**: 00:19:58
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:
Gerra sasoian ezin zuten solora ere irten, frontea hor bertan zuten eta. Zazpi hilabetean, koltxoi barik egiten zuten lo; koltxoiak leihoan jarri zituzten, balek ez dutelako artilea zeharkatzen. Abioiak ere asko sartzen ziren.

7. Milizianoen jatekoa

- **Erref**: MAR-033/015
- **Iraupena**: 0:01:16. **Hasi**: 00:19:58. **Bukatu**: 00:21:14
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- Ohiturak eta bizimodua » Bizioak

Laburpena:
Milizianoek ondo jaten zuten: bildotsak labean erreta, arroza, garbantzuak eta dilistak. Dirua ematen zieten etxekoei jatekoen truke.

8. Errazionamendua eta estraperloa

- **Erref**: MAR-033/016
- **Iraupena**: 0:01:49. **Hasi**: 00:21:14. **Bukatu**: 00:23:03
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:
Errazionamenduan ogi-kuskur bat ematen zieten. Olioa ere ematen zieten hilabete guztirako, baina oso gutxi izaten zen. Horregatik, ezkutuan ekarri behar izaten zituzten beste jenero batzuk, estraperloan.

9. Lehengoek ez zuten biziorik

- **Erref**: MAR-033/017
- **Iraupena**: 0:02:02. **Hasi**: 00:23:03. **Bukatu**: 00:25:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:
Etxean zegoena jaten zuten, ez zegoen gehiago eta. Hala ere, ez zeukaten biziorik, dena zegoen gozo. Gurasoek zeukaten apurra umeei ematen zieten, asko pasatutakoak izan dira euren gurasoak.

10. Gerra sasoian ezkutuan errotara

- **Erref**: MAR-033/018
- **Iraupena**: 0:02:58. **Hasi**: 00:25:05. **Bukatu**: 00:28:03
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:
Omara (Kortezubira) ere joan izan dira irinetan gerra sasoian, karburoa eskuan. Bidean guardia zibilek harrapatuz gero, dena kentzen zieten edo isuna jarri. Bestela, herrian bertan eduki dituzte errotak.

11. Alde handia kaletarren eta baserritarren artean

- **Erref**: MAR-033/019
- **Iraupena**: 0:02:22. **Hasi**: 00:28:03. **Bukatu**: 00:30:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea

Laburpena:
Lehen aldea nabaritzen zen kaletarren eta baserritarren artean. Baserritarrak atzetik ibiltzen ziren beti, pobreagoak zirelakoan. Janzkeran bertan ikusten zen aldea eta baita hizkuntzan ere; kaletarrek erdaraz eta baserritarrek euskaraz.

12. Eleizako kontuek garrantzi handia zeukaten

- **Erref**: MAR-033/021
- **Iraupena**: 0:02:18. **Hasi**: 00:31:46. **Bukatu**: 00:34:04
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:
Eskolari ez zitzaion garrantzirik ematen lehen, baina dotrinari asko. Hijas de Maríara ere falta barik joaten ziren. Lehenengo jaunartzea egiteko, esaterako, kartilla txikia eta handia ikasi behar izaten zuten.

13. Errespetu handia gurasoei, eliz-gizonei

- **Erref**: MAR-033/022
- **Iraupena**: 0:02:00. **Hasi**: 00:34:04. **Bukatu**: 00:36:04
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:
Lehen errespetu handia zieten gurasoei eta baita abadeei ere. Abadeak edo fraideak bidetik pasatuz gero, herritarrak jaiki eta txapela altxatzen zuten.

14. Berorika eta hiketa

- **Erref**: MAR-033/023
- **Iraupena**: 0:01:26. **Hasi**: 00:36:04. **Bukatu**: 00:37:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Berorika
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:
Berori esaten zieten eliz-gizonei eta baita medikuari edo albaitariari ere. Lagunen artean, ostera, hiketan egiten zuten.

15. Errespetu handia etxeko nagusiei

- **Erref**: MAR-033/024
- **Iraupena**: 0:02:14. **Hasi**: 00:37:30. **Bukatu**: 00:39:44
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:
Lehen plater batetik jaten zuten denek. Inoiz aitaren alderdira pasatuz gero, honek eskuan jotzen zituen. Orduan begirakune batekin ere dena ulertzen zuten. Aita-amamak lehenengoak izaten ziren beheko suaren ondoan jartzen.

16. Bikoteak domeketan elkartu

- **Erref**: MAR-033/027
- **Iraupena**: 0:01:48. **Hasi**: 00:41:59. **Bukatu**: 00:43:47
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

Laburpena:
Lehengo bikoteak domeketan elkartzen ziren dantzan egiteko. Elkarri musuak ematen zizkieten, baina ezkutuan.

17. Neskak ez ziren tabernara joaten

- **Erref**: MAR-033/028
- **Iraupena**: 0:03:57. **Hasi**: 00:43:47. **Bukatu**: 00:47:44
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak

Laburpena:
Oso txarto ikusten zuten neskak tabernetara sartzea. Ondarroar batekin taberna batera sartu zirenekoa kontatzen dute pasarte honetan.

18. Domeka erromeria eta nobioa ikusteko eguna

- **Erref**: MAR-033/029
- **Iraupena**: 0:00:55. **Hasi**: 00:47:44. **Bukatu**: 00:48:39
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

Laburpena:
Domeketan abarketak atera eta erromeriara joaten ziren. Pozarren joaten ziren egun horretan, nobioa ikusiko zutela eta.

19. Maiorazkoarekin ezkondu nahi zuten

- **Erref**: MAR-033/030
- **Iraupena**: 0:00:41. **Hasi**: 00:48:39. **Bukatu**: 00:49:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak

Laburpena:
Askotan etxera ezkontzen ziren bikoteak. Maiorazkoa zaharrena izaten zen eta harekin ezkondu nahi izaten zuten.

20. Tabernara joaten zen andreak fama txarra

- **Erref**: MAR-033/031
- **Iraupena**: 0:00:41. **Hasi**: 00:49:20. **Bukatu**: 00:50:01
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:
Tabernara joaten zen andreak fama txarra hartzen zuen. Normalean, neskatilak kuadrillan ibiltzen ziren hortik zehar.

21. Erromerietan dantza egin ostean etxera lagundu

- **Erref**: MAR-033/032
- **Iraupena**: 0:01:54. **Hasi**: 00:50:01. **Bukatu**: 00:51:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:
Erromerietara urrun ere joan izan dira, Lekeitiora eta Oletara esaterako. Oinez joaten ziren beti. Erromerian dantzan egin ostean, mutilek etxera laguntzerik nahi zuten galdetzen zieten neskei. Baina neskak ez ziren baietz esatera ausartzen.

22. Dantza soltea eta lotua

- **Erref**: MAR-033/033
- **Iraupena**: 0:01:18. **Hasi**: 00:51:55. **Bukatu**: 00:53:13
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:
Mutil gutxi ibiltzen zen soltean dantzan, batez ere lotuta egiten zuten. Baserrian bertan ere askotan egiten zuten dantzan, batek panderoa eta besteak musugitarra ateratzen zuen eta. Horrela ikasi zuen Juanitak soltean dantzan egiten.

23. Mutilak dantza eskatzen hurbildu

- **Erref**: MAR-033/034
- **Iraupena**: 0:01:48. **Hasi**: 00:53:13. **Bukatu**: 00:55:01
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak

Laburpena:
Neskak kuadrillan egoten ziren dantzan eta mutilak bazterretik hurbiltzen zitzaizkien dantza eskatzera. Gustatu ezean, ezetz esaten zieten. Gurasoak ziren alabak maiorazkoarekin ezkontzea nahi izaten zutenak, ez alabak eurak.

24. Baserritarrak kaletarrak baino gutxiago

- **Erref**: MAR-033/035
- **Iraupena**: 0:01:48. **Hasi**: 00:55:01. **Bukatu**: 00:56:49

- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea

Laburpena:
Pilotariek ez zuten neska baserritarrekin egon nahi izaten, kaletarrekin ibiltzen ziren. Gauza guztietan nabaritzen zen nor zen baserritarra eta nor kaletarra.

25. Santa Eufemiara eta San Kristobalen inguruko herrietakoekin dantzan

- **Erref**: MAR-033/036
- **Iraupena**: 0:01:34. **Hasi**: 00:56:49. **Bukatu**: 00:58:23
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Inguruko herriak eta auzoak
- Aisia » Jai-giroa » Auzoko ospakizunak

Laburpena:
Santa Eufemiara eta San Kristobalera urtero joaten ziren, inguruko herrietatik ere jendetza hurbiltzen ziren bertara. Asko gustatzen zitzaien inguruko herrietakoekin dantzan egitea, nobedadea.

26. Santa Eufemian jai handia

- **Erref**: MAR-033/037
- **Iraupena**: 0:00:42. **Hasi**: 00:58:23. **Bukatu**: 00:59:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Auzoko ospakizunak

Laburpena:
Jende asko batzen zen Santa Eufemiako jaietan eta dantza-korro itzelak egiten zituzten. Zapata kaxa batean eramaten zuten bazkaria.

27. Basoko erromerietarako abarketak edo abarkak

- **Erref**: MAR-033/038
- **Iraupena**: 0:00:55. **Hasi**: 00:59:05. **Bukatu**: 01:00:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:
Abarketak janzten zituzten basoko erromerietarako, eta euria egonez gero gomazko abarkak. Markinara joateko, ostera, zapatak janzten zituzten.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-11-13

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com